

# B

BARREN

TOKIKOM



EUSKARAK  
365  
EGUN

geu izateko  
euskararen herria

EUSKARAK  
365  
EGUN

geu izateko  
euskararen herria

905400000





San Migel Gaina z/g Tel. 943 74 31 02 [www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)



### ● Zein zerbitzu eskaintzen ditu Belaustegi jatetxeak?

Ezkongaien ezkontzaren antolaketan gero eta gehiago inplikatzeko gara eta zerbitzu osoa, integrala, ematen saiatzen gara. Besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditugu: zeremonia lorategian, lorak, dekorazioa, koktela, bazkaria, DJ-a, zuzeneko musika, photo call-a, Candy Bar-a, argazkilaria, autobusa, festa karpa azpian, makillaje zerbitzua (Mary Kay).

### ● Zein motatako ospakizunak prestatzen dituzue?

Eskaintza zabala daukagu. Azkenaldian gai jakin bati lotutako ezkontzek hartu dute indarra, boda tematikoek, alegia, eta horrelako ospakizunak ere eskaintzen ditugu gurean. Boda tematikoak prestatzeko malgutasuna beharrezkoa da, dekorazioa pixka bat aldatu egiten baita.

Adibidez, zinea izan da azkenengo ezkontzaren gaia. Horretarako, operien entrega Oscar Sarien banaketen formatoarekin egin zuten. Photocall-a alfonbra gorri batean jarri zuten eta Photocallean rotulatuta Oscar-etan

agertzen diren irudiak zeuden inprimatuta. Gonbidapenak, ezkontzako menua azaltzen diren tarjetak eta mahaien identifikazioak ere zinemaldi baterako eginak ziruditen. Horrelako ezkontzak prestatzeko lana dauka, eta guk laguntza eskaintzen diegu ezkonzaiei, euren ideia garatzeko.

Horrez gain, globo aerostatiko bat ere jarri izan dute noizbait Belaustegiko zelaian, eta su artifizialak

ere bota izan ditugu. Azken batean, ezkongaien neurria eginiko ospakizunak prestatzen ditugu.

### ● Zein ezaugarri ditu jatetxeak?

Jatetxeak hiru jantoki ditu. Handienean 120 lagun sartzen dira, bestean 60, eta txikienean, 30. Horrez gain, bi karpa ditugu kanpoaldean, koktela eta festa kanpoan egiteko. Karpa jatzeak izugarritzko zerbitzua eskaintzen du, izan ere, euria egiten duenean ere koktela eta festa kanpoan egiteko aukera ematen du. Karpak bereziak dira, eta estetikoki oso politak geratzen dira, etxearekin bat egiten dutelako.

### ● Zer eskatzen dute bezeroek?

Gehienbat ondo eta ugari jatea eta etxean bezala sentiaraztea. Horrek beti izango du garrantzia. Baina azkenaldian leku bereziak nahi dituzte, leku intimoagoak eta estetikoki erakargarriak. Belaustegik hori guztia eskaintzen du. Malgutasuna oso garrantzitsua da, eta gu ezkongaien beharretara egokitzen gara.



**Single festa Belaustegin  
abenduarren 6an**

**Autobusa, afaria eta DJa: 45€  
Izena emateko azken eguna: abenduak 5. Plaza mugatuak!  
Giro ona ziurtatuta! Animatu!**



Iñigo Lariz

Aupa, Ainhoa, aste honetan izan da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Na-

zioarteko Eguna. Hori ildo bezala hartuta eta kirolaren inguruan jarduten dugunez, bi gaiak uztartu eta gogoeta egitea ideia ona izango zela pentsatu dut.

Kirola gizartearen isla da zentzu askotan eta gezurra badirudi ere, bistakoa da gizonen eta emakumeen artean oraindik ere ezberdintasun nabarmena dagoela gai honen inguruan. Kirola mundu maskulinoa izan da betidanik, gizonen eremua, nor baino nor gehiago lehiatu eta indartsuena nor den erakusteko plaza. Oso kontzeptu maskulinoa du kirolak. Denbora asko ez dela azaldu da emakumea kirolean, bere espazioa aldarrikatzen. Urte gutxian kirol modalitate gehienetan parte hartzen hasi zarete eta egun, praktikan, berdintasuna nabarmena da. Baina oraindik ere gizonezkoek menperatzen duten esparrua da tamalez.

### “Tamalez, gizonezkoek menperatzen duten esparrua da oraindik ere kirola”

Komunikabide gehien kirol atalei bistadizoa ematea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Eliteko kirol askotan izugarriko desberdintasuna dago, futbola horren adibide. Beste kirol askotan, os-tera, berdintasun horren bila ari dira. Hori lortzeko bidea komunikabideetan bi sexuen inguruko informazioari trataera berdintsua ematean eta jarduten dutenen sari edo errekonozimenduan berdintasuna izatea dela iruditzen zait. Ez al duzu uste?



Ainhoa Lendinez

Kaixo, Iñi! Azaroaren 25a, bai, asteartea izan da aurten. Askotan iruditzen zait, hedabideetan puntu moreak jartzeko eguna izaten dela; “gaur”, “atzo” eta “bihar” dela ahaztuta, herri eta hirietako puntu beltzek 365 egun dituztela ahaztuta. *Berria* egunkarian iritzi-artikulu interesgarria irakurri nuen asteartean.

Egungo nerabeen artean, orain mende erdiko patroï berberei eusten zaiela zioen: baloiari ostikada indartsuak ematen ibiltzen dira mutikoa; jolastokiaren bazterrean, jolas bazterrekoetan neskatokak. Gure haur denboretan, gogoan daukat bazela neskatok bat zinez ona futboleant. Mutilen pare ibiltzen zen baloiari ostikoka, areago, haietako asko baino hobeto ere ibiltzen zen. Mutil arteko neska esaten zioten, marimutila bestela.

### “Egungo nerabeen artean, orain mende erdiko patroï berberei eusten zaiela”

Futbolari izkin egin eta euskal dantzetara lerratzen ziren mutiko bakanak, berriz, ez-mutilak ziren askorentzat. Ezagun da zenbait esparrutan aldatuz doazela kontuak, ez gaude, baina, zintzarria jotzeko. Maitasun historio ederra iruditzen zaigu neska bat helmugan ikustea, heroïaren zain beso zabalik. Ez horrenbeste mutil bat neska bati segika ikustea mendian gora, heroinari laguntzen.

Sariak eta aitortzak iritsiko dira, iritsi behar dute, tartaren ginga iruditzen zait, oraino, ordea. Eskoletan, hedabideetan, politikan, kalean... badaukagu zer aldatu eta landu, baina etxetik hasita. Sariak banatzen hasi aurretik, sehasketako maindireen kore arrosa eta urdina trukatzeara proposatzen dut nik.

## ELGOIBARKO MERKATARIONTZAKO OHARRA: LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Aurreko urteko arrakastaren ostean, aurten ere Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du abenduaren 24an Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean, BARREn eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenok, deitu telefono honetara (943 741 626) edo idatzi (elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) posta elektronikora **abenduaren 15a baino lehen**.



**Eskerrik asko!**



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika  
**ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro  
**KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E.  
**TIRADA** 4.860 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92  
**ISSN** 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Eskutitzailearen Topagunea

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi-biZiXal!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka!

#### Eskerrik asko!

Errigora, Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen ekimen herritarra izanik, Elgoibarko lkastolak eta AEK-k iaz egindako ahaleginak beste bultzada bat behar zuela pentsatu genuen. Errigora ekimena kalean ere sendotu beharra sentitu genuen. Euskal Herria elkartasunean oinarrituta eraiki beharko dugunez, Nafarroako hegoaldeko kalitatezko elikagaiari arrazoizko irtenbidea emateko ahalegina egin dugu, irabaziak hango euskalgintzara bideratzeko (Ikastolen Elkarte, Sortzen, AEK eta Zazpiak Bat-ek Erriberan garatzen dituzten proiektuetara). Ideia horren inguruan, gainera, Elgoibarko enpresa batzuetan ere langileak antolatu dira eta eskariak egin dituzte.

Bagenekien jakin erantzuna ona izango zela. Bagenekien, bai, baina ez genuen espero, inola ere, hain bikaina izango zenik! Elgoibarren, guztira, 146 otar saldu dira bizpahiru astetan. Pozik gaude emaitzarekin, eta itxaropentsu, jendeak elkartasunerako prestutasun handia erakutsi du eta.

Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera laguntza eman duzuen guzti-guztiori: informazioa eskatu duzuenoi; sare sozialetan, lantokian, familian edo lagunartean ekimenaren berri eman duzuenoi; eskariak jasotzen jardun duzuen elkarte eta taldeei; eta, nola ez, saskia erostera animatu zareten guztioi.

Ekimena ez da hemen amaitu. Jarraituko du...

**Elgoibarko Errigora Lan Taldea**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Herriguneko enpresak industriguneetara eramane behar dira:** “Ermuaranbide kalean hainbat industria enpresa daude oraindik, eta uste dugu legeak dioela enpresak herrigunetik kanpo kokatu behar direla. Enpresa horiek zarata handia ateratzen dute, eta bizilagunok jasan behar izaten dugu traba hori. Horrez gain, errepidean arriskua sortzen da sarritan, beraz, enpresa horiek lehen bailehen industriguneren batera lekualdatu beharko lituzkete”. Hirigintzako arduradunak dio, Elgoibarko Plangintza Orokorrean jasota dagoela ingurune hori ez dela industrialia izango, baina horrelako aldaketak ezin direla egun batetik bestera egin. Dena dela, zarataren arazoa aztertuko dutela gaineratu du.

**Kale bazterra erabiltzen dute trasteak gordetzeko:** “Bernardo Ezenarro kaleko etxebizitza batean, kale bazter bateko kanala erabiltzen dute trasteak gordetzeko. Ez dakigu kanal hori etxebizitzarena den edo gune publikoa den, baina dena dela, itxura txarra ematen dio inguruneari. Eskertuko genuke ingurune hori garbitzea”. Hirigintza Saileko arduradunak esan du beharrezko neurriak hartuko dituztela eta garbituko dutela ingurunea.



**Pilarreko aparkalekuan putzu handiak sortzen dira euria egiten duenean:** “Lehenago ere jarri genuen kexa hau, eta Hirigintza arduradunak esan zuen konponduko zutela arazoa, baina egoerak berdin jarraitzen du. Pilarreko aparkalekuan putzu handiak sortzen dira euria egiten duenean, eta autotik irten orduko busten zaizkigu oinak. Horrez gain, harriak erortzen dira goiko aldetik, eta egunen baten autoreen bateko kristalen bat puskatuta aurkituko dugu. Udalak Pilarren aparkalekua egitea erabaki badu, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko lituzkeela iruditzen zaigu”. Rikardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak esan du zulo batzuk egingo dituztela ura filtratzeko, eta ingurunea ere txukunduko dutela lehenbailehen.



**Euskaraz ekoiztutako filmak zergatik ez ditu euskaraz ematen Elgoibarko Kultura Sailak? :** “*Lasa eta Zabala* filma euskarazko produkzioa izanik, ez dugu ulertzen zergatik eman zuten filma gaztelaniaz Elgoibarren. Badakigu zapatu arratsaldetan ematen dutela filma bertsio orijinalen, baina euskarazko produkzioa hain urria izanik, aukera dagoenean filmak euskaraz eman beharko lirakeela uste dugu”. Kultura Saileko arduradunak ondorengo erantzuna eman du: “Arrazoiak daukazu. Larunbat gauean jatorrizko bertsioan bota behar zela-eta, ez ginen konturatu gaztelaniazko bertsioa euskarazkoa baino gehiagotan emango zela. Egia esanda, hurrengo batean hau kontuan izango dugu”. Film honi lotuta, beste kexa bat ere iritsi zaigu BARRENERA: “*Lasa eta Zabala* filma ikusteko jende ilara handiak egon ziren domekan. 18:40 ingururako ia Maala kafetegi pareraino iristen zen ilara, eta txarteldegia ez zuten zabaldu 18:55ak arte. Euripean egon zen jendea Herri Antzoki kanpoan zain, ordu laurden gutxienez, eta pelikula 20 minutu beranduago hasi zen. Ez da hori gertatzen den lehenengo aldia. Pelikula arrakastatsuak direnean behin baino gehiagotan gertatu izan da hori. Horrelakoetan ezin al da txarteldegia lehenago ireki?”. Kultura Saileko arduradunak ondorengo adierazi dute: “Leihatila irekitzeko orduari dagokionez, esan behar dugu leihatila 18:42an ireki zela. Herriko Antzokiko atea, berriz, 18:55ean ireki zen. Hau horrela izan zen, aurretik ikuskizun eszeniko bat egon zelako eta antzoki barruan, oraindik ere, jendeak desmontaketa lanak egiten ziharduelako. Horrez gain, esan behar da ilara luzea egin zela, alde batetik, Kutxabankek sarrerak inprimatzeko arazoak izan zituelako, eta bestetik, leihatilan bonoak kudeatu behar izan zirelako. Dena den, barkatu eragozpenak. Bukatzeko, eskertu nahi dugu asteburu horretan hainbeste jende hurbildu izana Herriko Antzokian izan diren ikuskizunetara. 1.013 pertsona izan ziren guztira”.



## Morez jantzi ziren Elgoibarko kaleak martitzenean, emakumeen kontrako indarkeria salatzeko

Informazioa eta orientabidea jasoko dute bulegora hurbiltzen direnek

**E**makumeen Kontseiluak antolatuta-ko Martxa Morea izan da aurtengo berrikuntza Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira antolatutako ekintzetan, eta arrakastatsua izan da estreinako deialdia. Pankartaren atzetik egin zuten lehen itzulia, prisarik gabe, eta hala nahi izan zutenek bigarren itzuli bat egiteko aukera ere izan zuten, norberak bere eritmorra. Martxa Morea hasi baino lehen elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan, eta martxaren amaieran, berriz, azaroaren 25eko adierazpen instituzionala irakurri zuten.



### Indarkeria datuak

Azaroaren 25aren harira, genero indarkeriaren Elgoibarko datuak jakinarazi ditu Udalak: urtariletik azarora bitartean 11 tratu txar kasu zenbatu dituzte, (22 izan ziren 2013an eta 18 kasu 2002an), eta ez dute sexu erasorik zenbatu aurten (jaz bi izan ziren). Jarritako salaketa kopuruak gora egin du aurten, zenbatutako kasuetatik %67k jarri baitute salaketa (jaz %53). Biktimen jatorriari dagokionez, %18 atzeritarrak ziren. Aldiz, aurreko bi urteetan %50era iristen zen batez besteko hori. Erasotzailearen batez besteko adina 42,1ekoa da aurten (jaz 35,5).



## Abenduaren 13an grabatuko ditu EITBk urte amaierako kanpaikadak

EITBk Elgoibartik emango ditu Gabon Zaharreko kanpaikadak, baina ez da zuzeneko emanaldia izango. Abenduaren 13an grabatuko dute ekitaldia, Santa Luzia egunean, hain justu ere. Euria egingo balu, hilaren 20ra atzeratuko lukete grabazioa.

Kalegoen plaza jendez bete nahi dute telebistakoek, eta horretarako musika ardatz izango duen lau orduko jaialdia antolatu dute: 20:00etatik 24:00etara bitartean izango da jaia, baina grabazioa 21:00etatik 22:00etara egingo dute. Une horretan San Bartolome parrokiako ordularia orduraz aldatuko dute, eta 23:00etatik 24:00etara izango balitz bezala egingo dute grabazioa.

Su artifizialik ere ez da faltako eta argiztatu egingo dute parrokia, San Bartolome egunean egin zutenaren antzera. EITBkoek txapelak eta bestelako apaingarriak banatuko dituzte, festa giroa erabatekoa izan dadin.

Euskal Telebistako aurkezle eta aurpegi ezagunak etorriko dira Elgoibarrera. Oihan Vega DJak girotuko du gaua, eta Euskal Herriko ahots talde onena bilatzen duen 'A ze banda!' saioko finalistak ere etorriko dira Elgoibarrera.

## Lekua **Merkatu Plaza**



Merkatu Plazako sarreran eskailerak kendu eta aldapa bat egingo dute. Ezinduak eta ume aulkiarekin erosketak egitera joaten direnek merkatu plazara sartzeko zailtasunak izaten dituzte, eta irisgarritasun oztopo horiek gaudituz nahi dituzte honekin Udalak. 5.000 euro inguru erabiliko dituzte. Datorren astean burutuko dituzte lanak, hilaren 4an eta 5ean. Aste honetan prestatu dute ingurunea, eta besteak beste, telefono kabina eta ON-CEko loteria saltzailearen kabina lekuz aldatu dituzte.


## Feria **Azken zapatuko feria**

Azaroko azken zapatuko feria antolatu dute biharko Udalak eta Debemeneak. Oraingon, Debabarrena areto futbol klubak jarriko du txosna, eta Belaustegiko sukaldariaren laguntzaz, errezeta berezi batzuk erabiliko dituzte hainbat jaki prestatzeko. Baserriko produktuekin prestatutako jaki osasuntsuak prestatuko dituzte, eta horrekin batera, elikagai horiek gure osasunari eragiten dizkieten onurak ere azalduko dituzte. Horri lotuta, baserriko produktuak erosten bost eurotik gora gastatzen duten herritarren artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastaketa menua zozketatuko dute. Zozketa 14:00etan izango da.

Ganadu erakusketa ere egongo da Aita Agirre plazan, eta Kale Kantariak 12:00etan irtingo dira, Kalebarren plazatik.

## Irudia **Baranda berria, Giza Eskubideen parkean**

Elgoibarko Udalak baranda berria jartzeko lanak hasi ditu Giza Eskubideen Parkean. Baranda zaharra kentzen eta berria jartzen ari dira beharginak. Lan honek 21.000 euroko kostua izango duela jakinarazi du Ricardo Garate Elgoibarko Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak. Herri barruko ia baranda guztiak, [3,5 kilometro baranda], berrietzeko lanak hasi zituen Udalak 2008an eta, orain, Giza Eskubideen Parkean, ibai ertzean, dagoen baranda zatiari ailegatu zaio txanda.



## **Bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute bihar**

Mugikortasun Iraunkorraren astearren barruan hainbat ekintza egin dituzte aste honetan, eta bihar izango da azken ekintza: bigarren eskuko produktuen merkatua egingo dute Lekueder parkean. Herriko ikastetxeek liburuak, jostailuak, bitxikeriak, apaingarriak... jarriko dituzte salgai, Parrokiako misio taldeak bidetako merkataritzako produktuak, eta, Miski Gobernu Kanpoko Erakundeak Peruko artisautzako hainbat produktu jarriko dituzte salgai, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Egun berean, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra egongo da umeentzat, 12:00etatik aurrera.

## **'Euskaraz bizi nahi dut' flash mob-erako entsegu orokorra, bihar**

Elgoibarko hainbat eragilek elkarlanean antolatu dute Euskaren Nazioarteko Egunerako ospakizuna, eta beste hainbat ekintzaren artean, *Euskaraz bizi nahi dut* abestiaren flash mob-a egingo dute abenduaren 3an, Josu Mujika koreografoak zuzenduta. Entsegu orokorra bihar egingo dute Ikastolan, 12:00etatik aurrera.

## **Gaur eta bihar egingo dute behartsuenen artean banatzeko janari bilketa**

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa masiboa antolatu du, eta Elgoibarko Gizarteratze Mahaia bat egin du ekimenarekin. Gaur eta bihar jardungo dute janaria biltzen, 9:00etatik 21:00etara. Eurak arduratuko dira janari bilketaz, baina bilketan lagunduko duen jendea behar dute. Boluntario izateko interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena, Ongizate Sailean (Kalegoen 6 behean), edo 943 741 008 telefonoan.

# Euskarara etorritakoak

**Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu eguaztenean, eta horren harira, euskarara gerturatu den familia errumaniar bat ekarri dugu orrialde hauetara. Cosmin Liviu Iga eta Rebeca Emilia Iga senar-emazteak eta haien seme Colin Floris dira gure gaurko protagonistak. Abenduaren 3ko iazko ekitaldian parte hartu zuen Rebeca Emiliak, eta euskarara gerturatzeko egindako ahaleginak bertako sentitzen lagundu diola esan du.**



*Cosmin Liviu Iga, Colin Floris Iga eta Rebeca Emilia Iga.*

**E**rrumaniarrak dira sortzez Igatarrak, Bukarestik 500 bat kilometro mendebaldera dagoen Lujog hirikoak, eta Elgoibarren bizi dira. Duela sei bat urte iritsi ziren Euskal Herrira, Elgoibarrera. Cosmin Liviu Iga (Lujog, 1976) izan zen gurera iristen aurrenekoa. Lanerako kontratu batekin etorri zen Cosmin, eta bera iritsi eta zortzi bat hilabetera etorri ziren haren emazte Rebeca Emilia (Lugo, 1980) eta seme Colin Floris (2004). Beharrak ekarri zituen Euskal Herrira, bizimodu hobe baten ametsak, eta “justuarekin, baina pozik” bizi direla dio Rebecak, euskaraz. Nabari da zailtasuna duela esan nahiko lukeen guztia nahiko lukeen moduan adierazteko, baina bi berba horiek mingaineratu zaizkio: justuarekin eta pozik. Haxe bizi du euskara ere gaur: hiztegiz justu, baina ilusioz. Euskarak ber-

takotzen lagunduko diela sinetsita daude, semearen kasuan garbi ikusi dutelako hala izan dela, eta “kostata” ari diren arren, ez daude amore emateko. “Nahi bada, lortu daiteke, eta nik nahi dut euskaraz bizi”, esan du Rebecak.

**“Saiatzeko esango nieke guztiei, hobeto integratzen laguntzen duelako euskarak”**

Euskaltegitik dator, karpeta besapean hartuta. Astelehenetik eguenera, goizero joaten dira euskaltegira Cosmin eta Rebeca, bi orduz. Gurtura joaten direla aitortu dute eta “konturatu gabe” pasatzen zaizkiela eskolako bi orduak, baina ez da beti horrela izan. Eskolan hasi eta astebetara lagatzeko tentazioa ere izan zuela aitortu du: “Ezin nuen gehiago. Sekulako negargurea izaten nuen. Saiatu arren ezin nuen. Ez nuen ezer ulertzen eta eskola orduak oso luzeak egiten zitzaizkidan”. Hein handi batean, semeagatik eta semeak hauspotuta erabaki zuen, bai-





na, jarraitzea. “Semea ikastolan ulertzeko gai ez denaz jabetzeko behar dut euskara, baina baita neu hemengo sentitzeko ere. Izugarritzko plazera da ingurukoei ulertzea. Semea beti daukat zuzentzen eta hori biontzako da ona, bera inportante sentitzeko eta nik aurrera egiteko”. Euskarazko lehenengo berbak ere [agurrak, zenbakiak eta koloreak] semeari esker ikasi zituen.

Sarri aipatzen du semea Rebecak, azken batean bera izan delako euskarara lotu duena. 5 urte zituen Colinek Elgoibarrera etorri zirenean, eta ikastolan euskaldundu da. Iritsi zenean, baina, errumanieraz baino ez zekien, eta jakina, “oso gogorra” egin zitzaion hemengora ohitzea. “Kalera irteten ginen eta beti atzera begira joaten ginen biok, etxera itzuli ahal izateko erreferentziak behar genituelako derrigor, ez ginelako hitz egiteko gai eta ezta idatzitakoa ulertzeko gai ere”, esan du Rebecak. Gogoan dauka Maalako parkera joan ziren lehenengo aldia ere. “Ume batzuk hurbildu zitzaizkion, baina berak ez zien ulertzen, eta nik ere ez. Etsigarria izan zen. Norberari buruz ari direla badakizu, baina ezin ulertu. Ez dakizu ezta gaizki esaka ari diren ere!”.

## Gaztelania, zubi

Gaur euskaraz bizi da, baina, Colin. Errumaniera du ama-hizkuntza eta errumanieraz mintzo da gurasoekin, baina gainerakoan, euskaraz komunikatzen da. Oso ume zela etorri zen hona, eta bera asko zuzenean euskaraz ikasi ditu. Horrek ama-semearen arteko jarduna ere zailtzen du batzuetan: “Sarri jo behar izaten dut hiztegi-ara, zenbait gaitan semeak hiztegi aberatsagoa duelako euskaraz errumanieraz baino”. Gaztelaniatik hurbildu da Rebeca euskarara; kalean, “belarriak erne izanez eta ahaleginak eta bi eginda” ikasi duen gaztelania “apurretik”. Errumanieraz pentsatzen duela dio eta hori gaztelaniaz nola esango lukeen asmatzen ibiltzen dela gero, euskarara itzuli ahal izateko. Horregatik nahi du gaztelania hobetu: “Pentsatu ahal hitz egiteko gai izateko noizbait euskaraz ere”.

Bere aldean, senarra hobeto moldatzen dela aipatu du. Irailean euskaltegira izena ematera joan aurretik, euskara ikasteko online ikastaroa egin zuen Cosminek, eta lanean ere “inguru aproposagoa” du euskaraz trebatzeko. “Antzuolan ari da lanean, inguru euskaldun batean, eta hori abantaila handia da. Nik etxean zer ikasiko dut ba! Pizten dut telebista, baina oso azkar hitz egiten dute eta ez naiz ulertzeko gai. Norbait behar dut ondoan, galde-tzeko”, esan du emazteak.

Tertuliak mintzapraktika programaren berri badu Rebecak eta badaki lagungarri izango zitzaiola halakoetan parte hartzea, baina aurreragorako ikusten du hori. “Orain ezin dut!”. Eta ezintasun hori euskaraz aritzeko erraztasun ezarekin lotzen du hein handi batean, baina baita arrazoi ekonomikoekin ere. “Zalantzarik ez dut asko ikasiko nuela kafe baten bueltan, baina ez nago dirua tabernan uzteko. Pasiarara joango nintzateke, baina oraingoz ez daukat erraztasun handirik euskaraz hitz egiteko”. Parte hartu du, hala ere, euskararekin lotutako ekimenetan. Iaz, esaterako, Elgoibarko Izarra Euskaltza-

leon topaguneak herriko beste hainbat eragilerekin batera Euskararen Nazioarteko Egunerako antolatu zuen ekitaldian parte hartu zuen. Atzerriko hainbat lagunek nork bere hizkuntzan irakurri zuten euskararen adierazpena, eta horietako bat izan zen Rebeca. “Testu bat errumanieraz jartzeko eskatu zidaten aurrena, eta plazan irakurtzea proposatu zidaten gero. Nik ezetza eman nien hasieran, lotsa handia ematen zidalako, baina azkenean konbentzitu ninduten, eta egia esan, oso zorionsu sentitu nintzen. Hemen bertako beste bat sentitu nintzen, eta hori gauza handia da”, esan du horren harira.

Errumaniarren kontrako “gauza zatar asko” entzun dituela esan du eta sarri ohartarazi behar izan duela errumaniarren artean denetariakoak daudela, euskal herritarren artean ere badiren bezala, baina iazko abenduaren 3ko ekitaldi hartan “onartua” sentitu zela nabarmendu du. “Hemen bizi diren errumaniarrak, gaur ezagutzen ditudan guztiak, ez nituen aurrez ezagutzen, baina egia da asko eta asko oso itxiak direla eta ahalegin gutxi egiten dutela hemengo ohituretara ohitzeko. Dirua egitera etorri dira, han miseria handia dagoelako, baina horiei guztiei esango nieke egiteko hemengora gerturatzeko ahalegin bat, asko aberastuko dituelako. Eta errumaniarrez ari gara, baina gauza bera esango nieke beste edozein naziontasun dutenei ere. Saiatzeko, hobeto integratzen laguntzen duelako euskarak”.

*Rebeca Emilia Iga eta Colin Floris Iga ama-semeak.*



## Duela zortzi urte beste egiten da gaur euskaraz Elgoibarren, baina estatistikoki espero zitekeenaren gainetik

Euskara transmititzeko nahia badute helduek eta egiten dute umeeekin, baina euren artean gutxi

**S**oziolinguistika Klusterrak Udalararen beraren enkarguz egindako euskararen erabileraren inguruko kale-neurketaren berri eman du Elgoibarko Udalak. Kanean egin dute behaketa, eta 6.246 herritarrek osatu dute ikerketarako lagina. Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera neurtu dituzte, giroa edo zonaldea, sexua, adin-tartea eta beste hainbat aldagaien arabera, eta lehenengo begiratuan ondorioz adierazgarriena zera da: gaur, duela zortzi urte beste euskara egiten dela kanean; ez gehiago, eta ez gutxiago [Herri gehienetan errepikatzen den joera]. Baina horrekin lotuta, bada kontu bat, Elgoibarren lehenengoz neurtu dutena eta kontuan hartzea komeni dena: euskaldun batek zer aukera duen euskaraz egiteko, euskaldun kopurua aintzat hartuz, ez baitago erabileraz gardentasunez hitz egiterik herrian zenbat elebakar eta elebidun dauden kontuan hartu gabe. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* hizkuntza gutxiagotuen erabileraren azuia ebazteko sortu zuen formula matematikoaren arabera neurtu dute hori, eta hortik atera dute, Elgoibarren, euskaraz egiteko aukera edo erabilera isotropikoa deitzen dutena %26koa dela. Hortik ondoriozta dezakegu euskaraz egiteko dagoen aukeratik gora egiten dela gaur euskaraz Elgoibarren (erabilera erreala). Hau da, euskaldunak euskaraz egiteko aukera duenean eusten diola euskarari.

Erabilera isotropikoa zera adierazten du: euskaldunek zenbat erabiltzen duten euskara, aukera duten guztietan euskaraz egiten dutela suposatuta. Eta hori neurtzeko Txillardegik proposatu zuen formula matematikoa dio euskararen erabilera-maila hiru osagaien funtzio zuzena dela: elebidunen proportzioa, mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean eta hizkuntza gutxiagotuarekiko lehialtasuna. Funtsean Txillardegik formula matematiko horrekin erakutsi nahi zuena da euskaldunok noiznahi, nonahi eta edonorekin erdaraz egi-



teko aukera izan arren, ez dugula beti erdaraz egiten, eta zorizko harreman posibleetan, estatistikoki espero daitekeenaren gainetik [erabilera isotropikoa] egiten dugula euskaraz, euskaldunok euskaldunekin batzera eta euskaldunekin jardutera jotzen dugulako.

### Erabilera, adinaren arabera

Erabilera isotropikoa eta erabilera errearen arteko harremana alde batera lagata, baina, egia da ondorioen artean badi-rela zer pentsatua ematen duten datuak ere. Esate baterako, hau: gaur oraindik ere, haurren artean egiten da euskara gehien, 2tik 14 urte bitartekoen artean, alegia. Haurrek %54 egiten dute euskaraz, helduek %35, gazteek -15-24 urte artekoek %34, eta adinekoek, %27. Eta, jakina, logikak erakusten duena betetzen da: paseo eta jolaslekuetan entzuten da kanean euskara gehien (%53), eta gutxien, berriz, gazte giroan, txikiteoan eta erosketa giroan (%24). Ikastetxeetako sarrera-irteera orduetan ere egin dituzte neurketak, eta batez beste %46 egiten bada ere, datuek argi erakusten dute ikastetxe batetik bestera

alde handiak daudela eta horrek lotura zuzena duela ikasleen adinarekin.

Erabileraren bilakaerari erreparatu gero, ikus daiteke haurren eta helduen erabilerak gora egin duela 2008tik hona, baina aldiz, gazteen eta adinekoetan euskararen erabilerak behera egin duela. Haurrek egiten dute euskara gehien beraz, eta jakina, haurren presentziak nabarmen areagotzen du euskararen erabilera. Datua argia da: nagusiak bakarrik daudenean erabilera %25,6koa da, eta haurrekin daudenean bi aldiz euskara gehiago egiten dute (%68). Eta nagusirik tartean ez denean, haurren euskararen erabilera %47koa da.

Azkeneko datu bat ere nabarmendu dute ondorioetan, generoari dagokiona. Horren arabera, emakumezkoek (% 43) gizonezkoek (%36) baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kanean. Hori bai, tentuz hartu behar da datu hori ere, ikertzaileek eurek onartzen dutelako kanean behatu dituzten emakume asko haurrekin hitz egiten ari zirela behatu dituztenean. Horrek erakusten du, beraz, hizkuntza transmitzeko nahia badutela helduek, gero euren artean egin ez arren.

# Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari papera eskuratu nahi duzue?

**BARREN** astekarian salgai

# 1€



## ABENDUAK 12. BARIKAKUA

- Eguzkiaren bidaia (Iriren Lagunek), ikuskizuna
- 17:30ean, Kultur Etxeko Sotoan
- 2-6 urte bitarteko haurrentzat
- Doan (ez da izena eman behar)



## ABENDUAK 14. DOMEKA

- Eguberrietako apaingarrien tailerra familian
- 10:00-13:00
- Aita Agirreko lekalean
- HH4-LH2ko familientzat (ume bakoitzeko guraso bakarrek eman ahaliko du izena)
- 5€ familialako
- Familiaren hizkuntza transmisioa lantzea da saioaren helburua, beraz, oinarritzko euskara maila izatea eskatuko dugu.

# KIRIBILKA

## ABENDUAK 20. ZAPATUA

- Ardiurrira familia iteera (Txondoraren jaia: Iriren Lagunen kalejira, Oñentzerori gutunak idazteko tartea eta ikatza ateratzea Oñentzeroren laguntzaleekin)
- 9€ pertsonako

## ABENDUAK 21. DOMEKA

- Eguberrietako sukalde txokoa familian
- 10:00-13:00
- Ludotekian
- HH4-LH2ko familientzat (ume bakoitzeko guraso bakarrek eman ahaliko du izena)
- 5€ familialako
- Familiaren hizkuntza transmisioa lantzea da saioaren helburua, beraz, oinarritzko euskara maila izatea eskatuko dugu.

**Izenematea:** [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) webgunean edo Elgoibarko Izarraren bulegoan (Ubitarte 4, behea)  
**Epea:** abenduaren 10era arte

## Erretratu zaharra



1976

Aste honetako erretratu zaharra Bittori Guenagak ekarri du BARRENERA. 1976ko erretratua da, eta Karakate mikologia elkartearen kanpoaldean aterata dago. Erretratuan agertzen diren gehienak elkarteko kideak dira. Gogora ditzagun zeintzuk diren:

**Goian:** Angel Mari Ansola, Ignacio Mugertza, Jose I. Korta, Iñaki Beristain (†), Jose Otaegi, Gregorio Las Heras, Jesus Arrieta, Tosi (italiarra), Jose Mari Aizpurua, Luis Urbieto, Mario Iranzo (†), Karmelo Loiola, Juan Etxeberria, Shanti (soinujolea).

**Erdian:** Eduardo Martin (†), Antonio Aizpiri, J. Pablo Iglesias, Gerardo Garate (†), Esteban Gonzalez, Mikel Osoro, Jose A. Olasolo, Jesus Mari Zabala.

**Behan:** Luis Mari Albeniz (†), Valentin Txurruka (†), Kandido (autobus gidaria), Juan Lizarralde (†), Rafael Urrusolo, Sabin Txurruka, Julian Iriondo, Roberto Aristi, Francisco Javier Bereciartua.



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON  
VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa  
Tel. 943 743 670

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezartzea  
Lantekua: eguzi, aluminio, PVC  
Pintura orokorra



**Jarri ezazu zure publizitatea  
Eguberrietako alean**

**B**

**BARREN  
astekarian  
943 743 704**



Urrian...

## JAIOAKOAK



**Mikel Azkoaga Telleria**  
Urriak 3  
Zigor eta Oihana



**Igor Espiga Lodeiro**  
Urriak 30  
Alvaro eta Ana Carolina

**Mikel Gutierrez Zelaia-Zugadi** Urriak 5  
Miguel Anjel eta Suriñe

**Karim Eddayaz Rodriguez** Urriak 6  
Bilal eta Nerea

**Nahia Serrate Justiniano**  
Urriak 7  
Jose Miguel eta Maribel

**Yassin Bassou Amraoui**  
Urriak 15  
Mohammed eta Naffisa

**Libe Lopez Arroitauregi**  
Urriak 14  
Alexandre eta Ziortza

**Xabi Lizarralde Alzpurua**  
Urriak 21  
Ion eta Miren Nekane

## HILDAKOAK

- Eduardo Egaña Irusta • 53 urte • Urriak 11
- Joaquin Herrero Fernandez • 72 urte • Urriak 14
- Jose Agirrezabal Cendoya • 85 urte • Urriak 15
- Joseba Iñaki Martiarena Fernandez • 60 urte • Urriak 17
- Josefa Garcia Estebanez • 86 urte • Urriak 21
- Antonio Guillen Maña • 73 urte • Urriak 22
- Julian Iriondo Bergaretxe • 94 urte • Urriak 23
- Jose Maria Agirregomezkorta Ibarluzea • 86 urte • Urriak 30

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

## EZKONDUTAKOAK

- Ion Zubiaurre Ros eta Erika Lehr Elorza Urriak 11
- Francisco Javier Hernandez eta Agurtzane Azpiazu Izagirre Urriak 10

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira  
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.  
Elgoibarko Izarrako bazkideek **3,50€** eta gainerakoek **4,50€**.

II. URTEURRENA

## MANUEL REMENTERIA GURRUTXAGA



2012ko azaroaren 26an hil zen, 92 urte zituela.  
Haren oroimenez urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 29,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



## Preso eta iheslarien eskubideak errespetatzeko aldarrikapena eta jaia uztartu ditu Sare Egunak

Kirola, herri bazkaria eta musika izan ziren eguneko osagai nagusiak



**P**reso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetuko duen herri-sarea ehundu eta konponbiderako pausoak emateko eskatu zuten zapatuan Mendaron Sare Eguneko ekintzekin bat egin zuten herritarrek. Joan den ekainean aurkeztu zuten Donostian Sare mugimendua, eta herritarrei konponbidearen parte izateko deia egin zieten sustatzaileek orduan. Mendaron ere sortu zuten taldea gerora, "konponbidearen amarauna josteko", eta talde horren sustatzaileek egun osoko egitaraua antolatu zuten zaturako. Alkortako Igoera lasterketarekin hasi zuten eguna, eta Mendaro bertako herri-kirol taldeak erakustaldi bat eskaini zuen gero plazan. Ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten 80 bat lagunek frontoian egin zuten herri-bazkarian, eta kafe tertuliaren ostean, musikak hartu zuen herria.



## Biharko iragarria zuten dantza saioa igandera atzeratu dute, eta film emanaldi batekin osatu

**L**ehiaketa izan behar zena dantza saioa izango da, eta bihar beharrean igandean izango da azkenean. Halaxe jakinarazi dute antolatzaileek, Mendaroko Gaztelekuak eta Ludotekak. Parte-hartze baxuak eragin du aldaketa. Hiru taldek eman dute izena, gutxi lehiaketa baterako, baina haiekiko errespetuz, saioa mantentzea erabaki dute antolatzaileek, nahiz formatoa aldatu. Dantza emanaldia igandean izango da San Agustin kulturgunean eta saioa biribildu aldera, *Street dance* filma ere eskainiko dute. Ondoren, eta saioa bukatzeko, koreografia bat ere prestatu dute antolatzaileek denek elkarrekin dantzatzeko. 17:00etan hasiko da saioa, eta sarrera doakoa izango da.



## Abenduaren 5a arteko epea dago ipuin lehiaketarako lanak aurkezteko

Ipuin lehiaketa antolatu du aurtien ere Mendaroko Udalak Debabarreneko ikastetxeetako ikasleentzat. Lehiakide bakoitzak lan bakarria aurkeztu ahalko du, euskara hutsean. Lehiaketara aurkezten diren lanek aurrez beste inon argitaratu gabeak eta saririk jaso gabeak izan beharko dira, eta gaia librea izango da. Lan guztiak abenduaren 5a aurretik aurkeztu beharko dira, Mendaroko Udalean. Hara eramaterik ez duenak honako helbide honetara bidali dezake: Mendaroko Udala (Kultura Saila), Herriko enparantza, 1. Guztira, zazpi sari banatuko dituzte, maila bakoitzeko bi, eta herriko idazleek idatzitako ipuinik onenari dagokiona. Informazio gehiagorako: [www.mendaro.net](http://www.mendaro.net).

# Josu Uriarte markinarra eta Nerea Amilibia aiarra gailendu dira Alkortako Igoeran

Sare egunerako antolatutako beste hainbat ekintzekin osatu dute aurten Alkortako Igoera

Sare egunaren barruan Alkortako Igoera jokatu zen zapatuan Mendaron. Hogeita sei lagunek parte hartu dute aurten, iaz baino bat gehiagok, eta Josu Uriarte markinarra eta Nerea Amilibia aiarra nagusitu ziren. Iaz Iban Murua elgoibartarrak egindako denbora ondu zuen Uriartek, 20:57ko denborarekin, baina errekorra Iñigo Lazkanok dauka oraindik: 20:24. Emakumezkoetan Nerea Amilibiak eusten dio errekorri, aurten ontzerik izan ez badu ere.



## Sailkapena

1 Josu Uriarte	20:57
2 Jokin Muñoz	22:42
3 Loren Galeano	23:00
4 Igor Urionabarrenetxea	23:20
5 Hasier Murua	24:17
6 Gorka Agirreazaldegi	24:32
7 Jon Larrañaga	24:35
8 Julen Salaberria	25:27
9 Igor Rey	26:30
10 Nerea Amilibia	26:47
11 Arkaitz Bernedo	26:57
12 Iker Leonardo	27:12
13 Mikel Fernandez	27:13
14 Jurdan Ezenarro	27:23
15 Jabi Fernandez	27:54
16 Miren Gallastegi	28:24
17 Borja Rodriguez	28:41
18 Ruben Rios	29:13
19 Eneko Salegi	29:24
20 Lore Berezartua	29:38
21 Sugar Etxaniz	29:38
22 Ibai Idoeta	30:11
23 Virgilio Guano	30:14
24 Aitzol Ezenarro	30:55
25 Jose Ramon Cabello	32:04
26 Jose Maria Elola	34:31



## Abenduaren 13tik 19ra bitartean jokatu da Nazioarteko Xake Txapelketa

Gustavo Barrenetxea elgoibartarrak bigarren urtez hartuko du parte

**A** benduaren 13tik 19ra bitartean jokatu dute aurtengo Nazioarteko Xake Txapelketa, eta antolatzaileek aste honetan jakinarazi dituzte partaide gehienek izenak [bat falta da zehazteko]: Santiago Gonzalez (Euskal Herria), David Astasio (Euskal Herria), Gustavo Barrenetxea (Euskal Herria), Patrice Etchegaray (Euskal Herria), Dragan Paunovic (Serbia), Kevin Spraggett (Kanada), Aleksa Strikovic (Serbia), Jonathan Cruz (Peru) eta Jaime Santos (Espainia).

### Barrenetxea, bigarren urtez

Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketaren lehen edizioa 1991. urtean jokatu zen, eta iaz arte sekula ez zuen elgoibartar batek parte hartu. Barrenetxeari etxean jokatu izanagatik ez zioten erraz jarri eta azken postuan amaitu zuen. Hortaz, iazkoa hobetzeko gogoarekin etorriko da aurten Sevillan bizi den elgoibartarra. Musikaria da lanbidez, baina xakeari ere ordu asko eskaintzen dizkio eta hainbat txapelketetan hartzen du parte. Gustavo Barrenetxea 1971. urtean jaio zen Elgoibarren. Elgoibarko Eskola Kiroleko xake txapelketa guztiak irabazi zituen, eta hiru alditan irabazi zuen eskolarteko Gipuzkoako Xake Txapelketa. 15 urterekin Elgoibarko helduen mailako txapelketa irabazi zuen, eta senior mailako txapelketetan parte hartzen hasi zen Zubi-Ondo klubarekin. Senior mailan ere lortu zituen garaipenak: Gipuzkoako txapeldun, Euskadiko txapeldunorde eta Euskadiko Unibertsitate mailako txapeldun izan zen, eta adin maila guztietan parte hartu zuen Espainiako xake txapelketetan. Euskadiko selekzioa ere ordezkatu du behin baino



*Gustavo Barrenetxea umetan, Gari Kasparoven kontrako aldi bereko partida batean.*

gehiagotan.

Era berean, Europako hainbat txapelketetan parte hartu du. Spliten (Kroazia) jokatuak txapelketa batean, gainera, Maisu Handi izateko norma lortzetik oso gertu ibili zen.

Makina bat txapelketa ere irabazi ditu (Gibraltar, Arrigorriaga, Los Palacios, e.a.).

Gaur egun Andaluziako Ohorezko Mailan jokatu du Barrenetxeak. Joko ausarta erabiltzeagatik bereizten da aurkariengandik, eta 2.261 ELO puntu izatera iritsi da. ELO puntuaketa 0tik 3000 bitartekoa da, eta Nazioarteko Xake Federazioak xake jokalarien joko-maila neurtzeko erabiltzen du.

## Euskarazko kanten bilduma sortu dute Spinning saioetan erabiltzeko

Debarroko Kirola Euskaraz egitasmoaren ekimenez, euskarazko kanten bilduma prestatu dute, eta Debarreneko kiroldegien eskura jarri dute, bereziki spinning klaseetan erabiltzeko. Aritz Alustiza musikari bergarra eta Eli Rodriguez Bergarako kiroldegiko begiralea izan dira bilduma hau egiteko ardura izan dutenak. Momentuz 250 abesti sartu dituzte bilduma horretan, baina arduradunek jakinarazi dute poliki-poliki abestiak gehituko dituztela. Spinning saioetan euskal musika gehiago erabiltzea lortu nahi dute arduradunek, eta bilduma horri esker, euskal musika erraz aurkitzeko aukera izango dute begiraleek. Ezinbestekoa iruditzen zaie egitasmoaren bultzatzaileei euskal musikak ere esparru horretan bere tokia izatea.

Gaur arratsaldean formazio-topaketa bat eskainiko zaie bailarako kiroldegietako begiraleei Mintxetan, 18:00etatik aurrera. Euskal musikaren bilduma aurkezteaz gain, spinning saioetarako musika nahasteko baliabide informatiboak erabiltzen ikasteko aukera izango dute.

## Kirol sarietarako hautagaiak aurkezteko azken eguna abenduaren 5a izango da

Aurten, abenduaren 22an egingo dute kirol federatuaren sari banaketa ekitaldia, eta herriko 19 kirol klubek parte hartuko dute. Eurei dagokie saritua proposatzea, eta abenduaren 5a arteko epea dute erabakia jakinarazteko. 2014 urtean nabarmendu diren kirolari, entrenatzaile, jokalaria ohi, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleei errekonozimendua erakusteko baliatzen ditu Udal Kirol Patronatuak Kirol Federatuaren Sariak.



# Morkaikok mendi lasterketen inguruko mahai-ingurua antolatu du hilaren 2rako

Uxue Fraile, Silvia Trigueros eta Maddi Arrazola ariko dira

**M**orkaikoren mendi emanaldien barruan, mendiko lasterketen gaineko mahai-ingurua izango da datorren martitzenean Elgoibarren. Uxue Fraile (1974), Silvia Trigueros (1976) eta Maddi Arrazola (1979) gonbidatu dituzte hizlari aritzeko eta Ainhoa Lendinezek gidatuko du saioa. Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan izango da mahai-ingurua, 21:00etatik aurrera.

Abenduaren 11n izango da hurrengo saioa. Alex Txikon lemoarrak eta Ekaitz Maiz nafarrak Karakorum (Pakistan) mendikateko Trango Dorreetan eginiko eskaladak azalduko dituzte Morkaikok eta Arnaldo askatu herri ekimenekoek elkarlanean antolatu duten emanaldian. Herriko Antzokian izango da saio hori, 21:00etatik aurrera. Abenduaren 18an, beriz, Eskandinabike proiektuaren berri emango dute Julen Salaberria, Eñaut Izagirre eta Mikel Arosa elgoibartarrek.

## Asier Urainek irabazi du Ipar-Zonako motokros txapelketa Euskadiko taldearekin

Espainiako Iparraldeko motokros txapelketa jokatu zuten asteburuan Sorrian, alebin, promesa eta junior-senior mailetan. Asier Urainek promesetan hartu zuen parte. Lasterketak bi txanda izan zituen, eta bigarren eta hirugarren egin zuen elgoibartarrek. Gainerako taldekideek beste probetan eskuratutako emaitzei esker, Euskadi izan da aurten Ipar Zonako txapelduna.



Asier Urain, ezkerrean.

## Imanol Garaizabalek irabazi du orientazio raid probetako euskal liga, bigarren urtez



Imanol Garaizabal elgoibartarrek orientazio raid probetako euskal liga irabazi du, bigarren urtez segidan. Ligako sei proba jokatu ostean, lehen postuan zeuden Imanol Garaizabal eta Aaron Garmendia laudiozterra, eta joan zen zapatuan zen jokatzekoa txapelketako azken proba. Proban parte hartzea nahikoa zuten txapelketa irabazteko, baina azkenean horren beharrik ere ez zuten izan, proba bertan behera geratu zelako. Datorren denboraldia hasten denean emango diete saria.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Aurrera Ondarroa 0 – Haundi 3 (Pref.)  
Elgoibar 3 – Burumendi 1 (Jub.)  
Ilintxa 0 – Elgoibar 3 (Kad. A)  
Urki 4 – Elgoibar 1 (Kad. B)  
Anaitasuna 1 – Elgoibar 1 (Lehen. Inf.)  
Elgoibar 6 – Billabona 0 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 0 – Anaitasuna 3 (Aleb.)  
Elgoibar 14 – Elbartarrak 0 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Pinseque 7 – Concepto Egile 4 (2B)

### ESKUBALOIA

Ikus Elg. 31 – Aiala 16 (Inf. nesk.)  
Pulpo 24 – Txarriduna Elg. 24 (Inf. mut.)  
Bankoa Elg. 32 – Saieko 12 (Kad. mut.)  
Pulpo 21 – Cometel Elg. 20 (Inf. nesk.)  
Eibar Eskubaloia 8 – San Roke Elg. 20 (Inf. nesk.)  
Amenabar Zarautz 21 – Beristain Elg. 27 (Jub. mut.)  
Lauko Elg. 32 – Kukullaga 28 (Sen. nesk.)  
Alkorta Elg. 23 – Santoña 21 (Sen. mut.)  
Arrasate 32 – Deca Elg. 27 (Kad. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 35 – Zuazo 20 (Kad. nesk.)  
Gabaz Elg. 37 – Egia 10 (Sen. mut.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 30  
12:30 Concepto Elg. – Segorbe (2B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 29  
12:00 Elgoibar – Eibar (Kad.)  
16:30 Haundi – Bergara (Pref.)  
18:30 Elgoibar – Getariako (Erreg.)  
Domeka, 30  
10:00 Elgoibar – Arrasate (Lehen. inf.)  
12:30 Elgoibar – Zumaia (Kad. B)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 29  
9:45 San Roke Elg. – Aloña A (Inf. nesk.)  
11:00 Cometel Elg. – Ikus Elg. (Inf. nesk.)  
12:30 Pneumax Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)  
16:00 Deca Elg. – Gure Auzune (Kad. mut.)  
17:45 Beristain Elg. – Leizaran (Jub. mut.)  
19:30 Alkorta Elg. – Anaitasuna (Sen. mut.)  
Domeka, 30  
9:30 Txarriduna Elg. – Amenabar B (Inf. mut.)

### PILOTA

Barixakua, 28  
Pala  
20:40 Lagunak 1 – Danok Bat (2. mailako nag.)  
21:30 Lagunak 2 – Azkoitia 1 (2. mailako nag.)

## Euskal hedabideak errespetatzeko eskatu du Hekimenek

Lankidetzaz eskaini dio Jaurlaritzari



Iban Arantzabal (Tokikom), Alberto Barandiaran Hekimeneko presidentea eta Iban Arregi (EKT).

Euskarazko hedabideen egoera eskasa dela azaldu du Hekimenek, herri ekimene-ko euskarazko hedabideak biltzen dituen elkarteak. Legebiltzarrean egin dute agerraldia aste honetan, eta besteak beste, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote «errespetatzeko eta onartzeko» euskarazko hedabideen sektoreak orain arte egin duen lana, eta aurrerantzean lankidetzaz jarduteko eskaintza egin diote Jaurlaritzari. Etorkizunera begirako lan ildoetan, finantzaketa publikoa da Hekimeneen kezka nagusietako bat, eta finantzaketa hori «zabaldu» beharko litzatekeela azaldu dute. Ildo horretan, publizitate instituzionalaren gaia jarri dute mahai gainean. 2013an Jaurlaritzak jarritako publizitatearen %2 baino ez zen heldu euskarazko herri ekimeneko hedabideetara. Egoerari «buelta ematea» proposatu du Hekimenek.

### ‘Kataiak’ musika emanaldia, gaur, IMHko museoan

Makina-erremintaren mendeurrenako ospakizunen barruan, Kataiak izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute gaur, IMHko museoan. Aitor Nova musikari elgoibartarraren proiektu honek musika, museoko makinarenhotsak eta enpresetan grabatutako irudi zein soinuak uztartzen ditu, makina-erremintaren iragana, oraina eta etorkizuna irudikatuz. Hiru saio izango dira (19:30ean, 20:30ean eta 21:30ean), eta 30 minutuko iraupena izango dute. Sarrera doan izango da.



## Santa Zeziliaren omenez, hainbat musika ekitaldi izan dira Elgoibarren eta Mendaron



Joan zen zapatuan Santa Zezilia eguna izan zen, musikarien zaindariaren eguna, eta horren harira, hainbat musika ekitaldi izan ziren Elgoibarren eta Mendaron. Argazkiko Elgoibar Ikastolako umeek Kalegoen plazatik Ikastolaraino egin zuten kalejirako irudia da. Horrez gain, Udal Musika Bandak ere kalejira egin zuen domeka goizean, eta eguerdian, Santa Zeziliako kontzertu berezia eskaini zuen Herriko Antzokian. Mendaron Ameikutz musika eskola-koak eta txarangakoak irten ziren kalera.

# Makina erremintaren euskarazko hiztegi tekniko digitala berri eta osatu du DanobatGroup taldeak

Ikasle eta langileen artean hiztegiari lotutako lehiaketa egin dute

**D**anobatGroup taldeak euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia erakutsi ditu sorreratik, eta badira urteak kooperatibako enpresetan euskarra planak martxan jarri zituztela, euskararen erabilera areagotzeko eta langileen motibazioan eta ezagutzan eragiteko. Plan horietatik hainbat lan argitaratu dituzte, eta aurten, makina-erreminta alorreko irudi zein hitzak euskaraz kontsultatzeko hiztegi tekniko digitala osatu eta berri dute.

Hiztegi honek, batetik, gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara kontsulta teknikoak egiteko aukera eskaintzen du. Bestetik, DanobatGroupen diseinatu eta ekoizten diren hainbat makinaren irudiak ere agertzen dira eta irudi horietan hiztegiko hitzak ikusi ahal dira. Horrez gain, nahi duen guztiak proposamenak egiteko aukera izango du, hitzen bat ez badu aurkitu. <http://hiztegia.danobatgroup.com/> helbidean dago hiztegia edonork erabiltzeko moduan, eta helbide horretatik, paperean argitaratzeko aukera ere badago. Artezteko makinak, tornuak, ebaketa eta zulaketako makinak, xafla transformaziorako teknologia eta fresatzeko makinetako plano mekanikoetan agertzen diren terminoekin sortu da batez ere, baina horiez gain, artezketa prozesua definitzeko erabiltzen diren hainbat hitz, Danobat Koop. E.ak argitaratutako Tailerreko Eskuliburu Teknikoan argitaratutako hitzak, eta Ideko Koop. E.ak lantzen diharduen osasungintza, aeronautika eta trenen sektoreko hitzak ere jasotzen ditu. Etengabe lantzen dute hiztegia, eta noizean behin eguneratuko dute



taldeko beste kooperatiba batzuetako terminoekin eta eguneroko lanean sortzen diren hitzekin.

## Lehiaketa

Hiztegia ezagutzera emateko eta euskararekiko duten konpromisoa sustatzeko lehiaketa bat antolatu dute Elgoibar, Bergara eta Sorluzeko eskoletako DBH 3. eta 4. mailetako eta lanbide heziketako ikasleekin (1550 inguru) eta baita DanobatGroup taldeko langileen artean (1000 inguru). Hiztegiari lotutako ariketa bat bete behar dute, eta partaideen artean opariak banatuko dituzte. Euskararen Egunean, abenduaren 3an, jakinaraziko dituzte sarituak.

## Iñaki San Martin 'Soarteren' argazki bat saritu dute Turkian



Arg.: Soarte

Iñaki San Martin Soartek Txiki Egunean ateratako argazki bat saritu dute Turkian, Marmaris International Photography Festival lehiaketan. Brontzezko domina eskuratu du *Txikian handia* izeneko argazkiak. Estilo librean eta txuri-beltzean ateratako argazki digitalen kategorian eskuratu du saria. Lehenago ere irabazi izan ditu Soartek sariak nazioartean, baina Txiki Egunean ateratako argazki bat saritzeak ilusio "berezia" egin diola aitortu du Soartek. "Oso egun berezia da elgoibartarrentzat eta sari honen urruneko lekuetan ere izango dute Txiki Egunaren berri". Sari honen zatitxo bat Mauxitxa txarangarentzat ere badela dio Soartek, Txiki Eguna berezia bada, hein handi batean, haiei esker ere delako.

## ETXEBIZITZAK

- Pisua alokairuan Santa Ana kalean. Bi logela, terraza handia, egongela. Altzariek. Igogailua eta ganbara ditu. ☎ **669 598 769**
- Apartamentu dotorea alokagai, Mendaron, frontoi alboan. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Altzariek. ☎ **652 718 426 (15:00etatik aurrera)**

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest: garbiketa lanak, umeak edo adinekoak zaindu... Interna edo orduka. ☎ **632 767 696**
- Emakumea lan bila: etxeak garbitu eta umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Ordu-tegi mal-gua. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**

- Pertsona bat eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **628 014 327**
- Emakumea lan bila: Esperientzia handia taber-netan lanean eta adinekoak zaintzen. ☎ **632 598 619**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientzia daukat. ☎ **606 859 448**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egiteko prest. Jendaurrean lan egiteko doaiak ditu. ☎ **622 501 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **688 682 398**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauzez... Ordu-tegi malgutasun handia. Esperientzia daukat. ☎ **626 914 904**

## IBILGAILUAK

- Seat Leon autoa salgai. Sport, TDI, 1.9, 110cv. 2005. urtekoa. Urdina. 5.000 euro. Prezioa negoziatzeko prest. ☎ **688 697 514**

## PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak ematen ditu: Batxilergoko matematika, DBH, LH eta kontabilitatea, ekonomia... ☎ **666 042 710**
- Batxilergoa: Bigarren mailarako klase partikularrak hartuko genituzke, bereziki, ingelesa eta gaztelania. ☎ **628 413 290**

## BESTELAKOAK

- Norbaitek soberan baldin badauka, gustura hartuko nuke telebista bat. ☎ **603 221 309**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



### **Etxea erabiltzea debeka dakioko noizbait etxe jabe edo errentari bati?**

Kasu batzuetan, bai. Adibidez, etxean, lokalean edo eta eraikineko beste edozein lekutan Estatutuetan debekatutako eta finka horrentzako kaltegarri diren jarduerak egiten diren kasuetan edo eta jarduera gogaikarri, osasunaren kalterako, arriskutsu edo legez kanpokoen gaineko araudian jasotakoa urratzen den kasuetan.

Kasu horietan epailea izango da beti etxea erabiltzea debekatuko duena, baina debeku hori gehienez ere hiru urtekoa izango da. Arau-hauslea etxejabea barik maizterra edo errentaria bada, epaileak erabaki dezake behin-betiko kaleratzea pertsona hori etxetik eta etxea berriz alokairuan jartzea. Kasu horretan amaitutzat emango da alokatze-hitzarmena.


**AHOLKUA: Sententzian epaileak debeka dezake etxe edo lokal horren erabilera, baina debeku hori sekula ezingo da izan hiru urte baino gehiagorakoa. Arau-haustearen larritasuna eta komunitateari eragindako kalteak hartuko dira debekuak zenbatekoa izan behar duen neurtzeko irizpidez.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Eki**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Alain**, asteazkenean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, bereziki zure arreba Mariaren partez.



• Zorionak, **Iker**, 8 urte bete dituzulako. Oso ondo pasatu genuen zure ospakizunean. Etxekoen, eta bereziki anaia Markelen partez.



• Zorionak, **Nagore**, abenduaren 1ean 9 urte egingo dituzulako. Besarkada handi bat eta musutxu asko, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Itsaso!** 2 urtetxo dagoeneko! Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Oihane eta Saioaren partez.




• Zorionak, **Unax**, hilaren 22an 2 urtetxo bete zenituelako. Etxekoen, eta bereziki, arreba Malen eta lehengusina Naroaren partez.




• Zorionak zure zazpi-garren urtebetetzean, **Beñat!** Muxu asko etxekoen partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Danel**, ostiralean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez. Segi horrela!



• Zorionak, **Suhar eta tio Juan**, hilaren 26an eta 29an urteak beteko dituzuelako. Muxu handi bat, familiako guztion partez.



• Zer uste zenuten Elgoibarko sorginak ez zirela zuekin gogoratuko? Jajaja. Zorionak, **bikote!** Ondo-ondo pasa, guk ere hala egingo dugu-eta.

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

Ostiral honetan  
Kultur Etxean izango den  
jostailuen inguruko  
erakustaldian egongo gara.  
Animatu eta etorri!



Igande honetan,  
azaroaren 30ean,  
Eguberrietako  
programaketa erabakitzeko  
bigarren asanblada.

## 28 barixakua

### Musika

#### 18:30 Entsegua

Kale Kantariak entsegua egingo dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan, biharko ferian abesteko.

### Musika

#### 19:30 'Kataiak'

Makina-erremintaren mendeurrenaren barruan, ordu erdiko hiru saio eskainiko dituzte. IMHko museoa.

## 29 zapatua

### Azken zapatuko feria

#### 9:00 Ganadu erakusketa

Aita Agirre plazan.

#### 9:00 Baserriko produktuak

Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan.

#### 11:30 Txosna

Debabarrena Areto Futbol taldekoek jarriko dute txosna, Kalebarren plazan.

#### 12:00 Kale Kantariak

Kalebarren plazan hasiko da kalejira.

### Kontsumo

#### Iraunkorra

#### 10:00 Feria

Bigarren eskuko produktuen feria, Lekuederren.

Etxeko erakusketa gelan, hilaren 29ra arte.

## 2 martitzena

### Kirola

#### 21:00 Mahai-ingurua

Morkaikok antolatuta, Uxue Fraile, Silvia Trigueros eta Maddi Arrazola mendizaleekin mahai-ingurua izango da, Musika Eskolan. Moderatzailea: Ainhoa Lendinez.

EUSKARAK  
365  
EGUN

## EUSKARAREN EGUNA

### 29 ZAPATUA

12:00-13:00 *Euskaraz bizi nahi dut* flashmoberako entsegu orokorra Ikastolan.

### 2 MARTITZENA

19:00 Elgoibarko Herri Eskolak Miren Azkarate ekarriko du Elgoibarrera. *Guraso eta irakasleak hitzun* izeneko hitzaldia eskainiko du musika eskolan.

### 3 EGUAZTENA

9:15-11:30 Kalejira antolatu dute Herri Eskolakoek.

10:00 Disko-festa izango dute Lekuederren bertan, Urko DJarekin.

**Ondoren**, euskararen aldeko adierazpena irakurriko dute Herri Eskolako guraso, irakasle eta ikasleek.

15:30 Euskararen Nazioarteko Eguneko jaialdia, Mendaroko ikastolako patioan (Herritar guztiei irekia). Haur Hezkuntzako hurrek abesti bat abestuko dute, eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarren mailara artekoek bertsoak abestuko dituzte, sendabelarrak gai hartuta.

16:30-18:00 Argitxo iratxoarekin berbetan saioa, 2 eta 5 urte arteko neska-mutilentzat. Kultur Etxeko sotoan, Taupada Antzerki Taldearen eskutik

18:00 Euskararen aldeko manifestuaren irakurketa eta *Euskaraz bizi nahi dut!* flashmob-a, Kalegoen plazan.

**Ondoren**, kalejira.

Elgoibar Ikastolan ikastetxe barruan ospatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna. Hainbat ekintza antolatu dituzte, tartean antzerkia, jolasak, herri-kirol saioak eta musika eta kantu saioak. Goiz partean, *Aupa Etxebeste* filma ikustera irtengo dira Herriko Antzokira.

### ABENDUAK 5-6-7-8

*Loreak* filma, Elgoibarko Herriko Antzokian.

### 7 DOMEKA

*Friends* animaziozko filma, euskaraz. Herriko Antzokian, 16:30ean.

### 12 BARIXAKUA

*Potologuak* antzerki-obra, Herriko Antzokian, 20:30ean.

### 17 EGUAZTENA

Euskaldunak Elgoibarren liburuaren aurkezpena, Kultur Etxeko sotoa, 19:00etan.

**ZINEA**  
(HERRIKO ANTZOKIAN)

«La isla mínima»

28, barixakua: 22:15  
29, zapatua: 19:00/22:15  
30, domeka: 19:00  
1, astelehena: 21:30

«Thor, la leyenda del martillo mágico»

30, domeka: 16:30

### BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
28 Garitaonandia 29 Etxeberria 30 Etxeberria 1 Yudego 2 Fernandez 3 Zabaleta 4 Barrenetxea 5 Ibañez	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larraldietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

# EUSKARAK 365 EGUN ELGOIBARREN

Abenduak 3, asteazkena

16:30 -18:00: Argitxo iratxoarekin berbetan (2-5 urteko neska-mutilentzat)

Kultur Etxeko sotoan  
Taupada Antzerki Taldearen eskutik

18:00: Elgoibarko euskaltzaleon elkarretaratzea

Kalebarren plazan  
Ondoren, kalejiran irtengo gara herriko kaleetara

18:30: Manifestuaren irakurketa eta *Euskaraz bizi nahi dut!* flashmob-a (dantza)

Kalegoen plazan  
Oharra: flashmob-era kolore biziko kamisetak jantzita azaldu, mesedez

## BESTELAKO EKINTZA BATZUK:

- *Gurasoak eta irakasleak hitzun* hitzaldia. Miren Azkarate. Abenduak 2 (19:00), Musika Eskolan
- *Loreak* filma, abenduak 5-6-7-8, Herriko Antzokian
- *Friends* animaziozko filma euskaraz. Abenduak 7 (16:30). Herriko Antzokian
- *Potologuak* antzerki-obra, abenduaren 12an (20:30), Herriko Antzokian
- *Euskaldunak Elgoibarren* liburuaren aurkezpena, abenduaren 17an, Kultur Etxeko sotoan (19:00)

***Euskara ez bada, ez gara.  
Euskara geu gara.***

Antolatzaileak: Elgoibarko hainbat elkarte eta erakunde euskaltzale

Babesleak:





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



## Abuztuan irekita

**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**  
**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**  
Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleido Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleido Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsan eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Uleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**  
Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea, Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Okulsioko Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**  
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBANA, AEGÓNSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com